

Kolegioko besta

Doña Maria kolegioko besta ospatu dugu abenduaren 12an ostiralarekin. Urteko gaia "Biziarazten duten hitzak esaizkidazu" zelarik.

Elizkizun batekin hasi dugu eguna. Gela bakoitzak gai horren inguruan landutakoak erakutsi du, ekoizpen desberdinak eta aberatsak ikusaraziz.

Ikasleek motibatzen, lotzen eta handitzen duten hitzen inguruan lan egin zuten aurretik.

Urtero bezala, elkarre bat lagundu dugu. Aurten Madag'Azkar elkarteak aukeratu genuen. Elizkizunaren ondotik, elkarre horrek bere ekintzak eta engaiamenduak aurkeztu dizkigu. Trukaketa garai horretan, ikasleek ulertu dute elkarrearen proiektu solidarioa eta nola ikastetxeak, ikasleei esker, azken hau lagundu duen.

Arratsaldea goxoki pasa dute ikasleek, kirola eta kulturaren inguruko jokoak eginez. Ikasleak bi lekutan banatuak izan ziren, batzuk kolegioan gelditu ziren eta beste erdia Campos Berrira joan zen. Momentu horiek kolegioko 4 geletako ikasleek antolatu zituzten. Elkartasuna eta kooperazioa garatzeko parada izan zen ikasleentzat, baita ikasle eta irakasleen artean.

Eguraldia lagun, pozak, elkarbizitzak eta guziren engaiamenduak markatu dute guretzat garrantzitsua den egun hau, urteko gaiari eta Doña Maria ikastetxearen baloreei zentzua eta bizia emanez.

*Donibane Lohizuneko
Doña Maria kolegioa*



Hostoz Hosto

Aurten Hostoz Hosto proiektuan parte hartu dugu. Komikiak, eleberriak, bildumak, liburu mota desberdinetako liburu batzua irakurri ditugu.

Joanes, Geneviève eta Ttoni, liburutegiko animatzaileak, 4 aldiz etorri dira eskolako talde guziekin lan egitera.

Momentu horietan eskulanak egin ditugu liburueri buruz, edo ttikieri

ipuinak kondatu dituzte.

Hostoz Hosto proiektua bukatuko delarik, gure eskola Sarako beste 2 eskolekin martxoaren 31n elgarrutuko gira Lurberri gelan. Egun hartan gure lan guztiak erakutsiko dizkiogu batak besteeri.

Milesker anitz Ttoni, Geneviève eta Joanes momentu goxoak pasatu ditugu zuekin liburuen artean!

Sarako San Josepe eskola



Erregearen opila

Gure eskolako ikasle elebidun guziek, urtarrileko opilari buruz lan egin dute. Lehenik ama eskolako haurrek "Roule Galette" liburua deskubritu dute. Haur guziek errola berezia ukanez, istorioa kondatzen ikasi dute. Haien aldetik, handiek opilaren errejeta landu dute. Osagaiak zehaztu eta gero, etapa bakotxa

euskaratu dute. Bukatzeko, sortutako errejeta segituz, bi gelek opila sukaldatu dute, baba ematea ahantzi gabe! Labetik atera ditugun opilak biziki ederrak izan dira eta zer usain goxoa izan den gure eskolan! Zuek ere opil ona dastatu nahi baduzue, gure errejeta segi ezazue!

Osagaiak:

- 2 arroltze
- 100g-ko azukrea
- 75g-ko gurina
- 2 hostore
- 280g-ko amanda hautsa
- 1 goringo



Etapak:

1. Hostorea molde batean eman. Sardexkarekin ore ziztatu.
2. Ontzi batean, amanda-hautsa, azukrea, goringoa, gurin biguna nahasi.
3. Orea moldean ezarri eta baba kukutu.
4. Bigarren hostorearekin gainezkatu. Kasu, inguruak ontsa kolatu!
5. Tartaren gainean apaindu eta goringorekin kareztatu.
6. Laberatu zintzilik 20-30 minuturen artean 200°C-tan. Kasu, egiaztatu usu egozketa!

Beskoitzeko

Jondoni Bixintxo eskola

Bertsolaritza eskolan



Urte berri hau bertsotan hasi dugu. Horrela, astelehen goizetan, oren batez, Xan Alkhat heldu zauku gelarat bertsolaritza lantzeko. Lehenik joko batzuen bidez, emeki emeki sartzen gira proiektu horretan. Errimak errespetatuz, silabak kondatuz, sinonimoak erabiliz, entseatzen gira bertsu ttipi batzuen idazten. Horra gure lehen lana: Txiste ona kondatu.

*Etxean amari
Edo moltsa kukutu
Ganbaran aitari
Ta errotak zilatu
Gure attattari
Mundu huntan badira
Aukera ugari.*

Proiektu horren bukatzeko, martxoaren 9an, Donapaleuko beste 2 eskolekin elgarretaratuko gira gure bertsoen aurkezteko. Milesker Xan egiten duzun lanarentzat! Plazer bat da!

**Donapaleuko
Etchecopar eskolako
CE2 eta CM ikasleak**